



servicios a la ciudadanía

# 2021 LGTBI HARROTASUNAREN EGUNA, LANA ETA HE-RRITARRAK ERALDATZEN

Pandemiak eragindako mundu mailako krisi egoera zail honetan, bizitzari duintasunez disfrutatzen eskubiderik ez kentzeko... FSC-CCOOK bat egiten du aurten ere LGTBI Harrotasunaren egunarekin gure aldarrikapenak era berezian plazaratuz.

1969ko ekainaren 28an, New York-eko Stonewall Inn tabernan gehien bat transexualak, trabestiak, drag-ak eta homosexuak egoten ziren pubean sarekada egon zen: kontsigna, nortasun agirietan ageri zen beste sexuko arropa zeramatenak atxilotzea zen. Egoera hark istiluak eragin zituen eta horrek markatu zuen LGTBI Mugimenduaren hasiera. Gure oroimenean Sylvia Rivera, Marsha Johnson edo Tammy Novak bezalako izenak gordez, emakume transexualak, beste batzuekin batera, komunitate honetako protagonista izan zirenak gertaera iraultzaile hartan.

FSC-CCOOK salatu egiten du Trans kolektiboarekin dugun zor historiko hau eta gaur egun oraindik ere badirauren diskriminazioarekin, pobrezia, indarkeria eta langabezia tasa handienetakoa duen kolektiboa baita.

FSC-CCOOK beti ospatu ditugu gizarte mailan zein legedian izan diren aurrera pausoak azken hamabostu urteetan LGTBI arloan: sexu berdineko pertsonen arteko ezkontza baimentzen duen legea, Erregistro Zibilean izen eta sexu aldaketa ahalbidetzen duen legea eta maila autonomikoan eman diren beste hainbat LGTBI eta Trans kolektiboek, laneko, osasun, hezkuntza eta gizarte eskubideak aitortzen dizkietenak. Hala ere, beharrezkoa den Trans Lege Integralaren onarpena atzeratzen ari da. Trans pertsonen eta gainerakoek arteko berdintasuna ahalbidetuko luke baina baita ere trans pertsonen artekoa, dagoen lege hutsunea dela eta desberdinatsun egoeran baitaude bizi diren autonomia erkidegoaren arabera.

FSC-CCOOK salatu egiten ditu ultraeskuinaren eta beste sektore batzuen gorroto diskurtsoak, trans pertsonen aurkako indarkeria sustatzen dutelako.

FSC-CCOOK dei egiten dio koalizio Gobernuari duela hamabost urte hasi zuen ibilbidearekin jarraitzea (nazioartean mailan erreferentzia herrialdeizan baikinen Berdinatsuna eta Giza Eskubideen gaitan) eta Trans Lege Integrala onartzera.

FSC-CCOOK, LGTBI kolektiboaren defentsan jarraituko du, bereziki Trans kolektiboarena, prestakuntza ahalbidetuz, hitzarmenak negoziatuz eta langileak, gerta daitezkeen desberdintasun, eraso, kaleratze, indarkeria, pobrezia eta beste hainbat egoeren aurrean babesteko dituzten protokoloak sustatuz.

FSC-CCOOK elkarlanean jarraituko du elkarte eta erakundeekin, persona guztien arteko benetako berdintasuna lortzeko eta Giza Eskubideak babesteko.

